



Astigarragako Udala

ASTIGARRAGAKO UDALAREN ETA ERAGIYOK ABESBATZA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO

Astigarragan, 2026ko otsailaren 24an.

PARTE HARTZEN DUTE

Alde batetik, Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako alkatea, Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

Bestetik, Javier Oyarzun Goyalde, G75225987 IF zenbakia duen Eragiyok abesbatza elkartearen izenean eta ordezkaritzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

ADIERAZTEN DUTE:

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluari jarraikiz, udalerrien eskumen propioa dela: Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.

2.- Eragiyok abesbatza elkartearen xedea, besteak beste, honako hau dela: abesbatzatik era aktiboan lan egitea euskara, euskal kulturaren alde, eta Astigarragaren izena gertuko eta urrutiko eremuetan zabaltzea. Euskal abesbatzen tradizioa eta euskal doinuak zabaltzea, Astigarragan eta hemendik kanpo emanaldiak eskainiz eta herri mugatik kanpo Astigarraga eta abesbatzaren jarduna ezagutzera emateko.

3.- Elkarreak Astigarragako Udalari 14.000€-ko dirulaguntza eskatu diola 2025/10/20an 2025-00000004942 erregistro-zenbakia) Eragiyok abesbatzaren 2026ko ondoko gastuei aurre egiteko: AHOBÉR zikloko 3 kontzertu antolaketa gastuak, zuzendaritza eta kontzertuetako musikari eta kanpoko abesbatzen ordainketa gastuak, eta abesbatzak kontzertuetarako dituen beste behar batzuei aurre egiteko, hau da, instrumentu alogera, jantziak, eskuorriak, oroigarriak....

4.- Astigarragako Udalak onartuta duela 2026an indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoa; eta plan horretan, dirulaguntza izendunen lerro hau jasotzen dela:

Pertsona hartzaileak: Eragiyok abesbatza

Ematearen modalitatea: Izenduna.

Helburuak: abesbatzak urtean zehar eskainiko dituen emanaldiak, abesbatzaren prestakuntza artistikoa eta elkartearen kudeaketa gastuak laguntzea.

Laguntzaren zenbatekoa: 10.000 €

5.- Dirulaguntza hau bideratzeko Udalak 10.000 € aurreikusi ditu udal-aurrekontuko kontu-sail honetan: 1 0700.481.01.334.17 2026 (3094)

6.- Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. eta 28. artikuluekin eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzarekin bat etorrira, zuzenean ematen diren diru laguntzen erabakiak hitzarmen bidez hartu behar direla; eta ezinbestekoa dela araudi horietan xedatutakoa kontuan hartzea.

7.- Hirugarren akordioan jasotako jardueren izaerari zalantzarik gabe erantzuten dioten gastuak baino ez dira diruz lagunduko, betiere hitzarmenean ezarritako epeen barruan egiten badira.

8.- Elkartea desegingo balitz, Udalak emandako dirulaguntzekin erositako jantzi, instrumentu, material edo ekipamendua Udalaren jabetzakoa izango litzateke.

Ondorioz, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau onartzea akordio hauekin:

AKORDIOAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea honako hau da: Eragiyok abesbatzaren ohiko jardueretarako dirulaguntza arautzea.

BIGARRENA.- Ekintza hori bideratzeko Astigarragako Udalak Eragiyok abesbatza elkarteari 10.000 €ko dirulaguntza emango dio.

HIRUGARRENA.- Eragiyok abesbatza elkarteak betebeharrak hartzen ditu:

3.1. Jarduera hauek burutzea:

- AHOBER AHOTS BERDINEN ZIKLOA (3 emanaldi) eta berari dagozkion hainbat



Astigarragako Udala

gastu ordaintzea (taldeen katxea, kanpoko taldeen ostalaritza gastua eta publizitate, eskuorri eta oroigarriak). Zikloko kontzertuak Astigarragan eskainiko dira, Erribera kulturgunean edo herriko beste guneren batean.

- ERAGIYOK ABESBATZAK urtean zehar Astigarragan gutxienez hiru saio eskainiko ditu eta horiek izan litezke Ahober zikloaren barruan bakarka edo beste abesbatza batekin partekatutako emanaldia, kaleko emanaldia, herriko beste kultur eragile batekin/ batzuekin batera osatutakoa edo herriko elkarte baten alde eskainitako saioa.

- Bere jarduera jasotzen duen urtekaria argitaratzea.

3.2. Dirulaguntzaren udal ordenantzaren 22. artikuluan adierazitakoa betetzea, hala nola: diru-ekarpena dirulaguntzaren xederako erabiltzea, dirulaguntza zuritzea, beharrezko baimenak eskatzea, udalaren ikuskaritza onartzea, hizkuntza- eta berdintasun-irizpideak betetzea, aldaketa esanguratsuen berri ematea.

3.3. Elkaratearen ardura izango da ekintza bideratzeko beharrezko giza-baliabideak jartzea; eta nolanahi ere, indarrean dagoen legeria betetzea.

3.4. Dirulaguntza itzultzea, baldin eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta, nolanahi ere, indarrean dagoen araudiak xedatutako kasuetan.

3.5. Dirulaguntza justifikatzea 2027ko urtarrilaren 15erako beranduenez, eta gastuak ordenantzaren 24. artikuluan jasotako agiri bidez zuritu beharko dira.

3.6. Diruz lagunduko diren gastuak, udal ordenantzaren 8. artikulua dioenez, jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak izango dira. Ostalaritza eta dieta gastuak zerbitzua edo lana ordaintzeko denean bakarrik onartuko dira, baldin eta gastua emandako zerbitzuarekiko proportzionala bada eta zerbitzua eman duen talde edo konpainia artistikoko kideetara mugatuta badago. Kanpotik bidaiatu behar duten talde ez profesionalen kasuan bakarrik onartuko dira zerbitzuaren fakturaz gain ostalaritza eta dieta gastu gehigarriak. Bidaia gastuak berriz, gehienez %30ean lagunduko dira.

3.7. Jasotako zenbatekoak itzultzea, dagozkion atzerapen interesekin, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzan edota hitzarmen honetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

3.8. Hitzarmen honetan hitzartutako lankidetzak eta betetze mailaren jarraipena egiteko udalak eskatutako bilerak egitea eta informazioa ematea. Udalak horrela eskatuz gero, elkarateak ezingo dio uko egin.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak hauek izango dira:

4.1. Onartutako dirulaguntza ordaintzea, eta Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 23. artikulua aurreikusitako %70 ko aurrerapena egitea.

4.2. Jarraian adierazten diren udal azpiegitura eta ekipamenduak uztea (*aretoak, espazio publikoak, mahaia, aulkiak...*) , baldintza hauetan:

- Erribera kulturguneko 203 gela ohiko entseguak egiteko eta S05 administrazio lanak egiteko, bi guneak Astigarragako Aiztondo abesbatzaren partekatzeotan. Horietarako sarbidea mugagabea izango da. Nolanahi ere, Aiztondok ikasturte hasieran erabiltzeko eskaera aurkeztuko du udaletxeko sarrera erregistroan eta adierazi entsegu egun eta orduak eta giltzaren baimena duten pertsonen izen-abizenak. Dena den, **udalak erabaki dezake 203 gela libre dagoenean beste norbaiti ere uztea**, kasu horretan, Eragiyok elkarteari horren berri emango zaio.
- Erribera kulturguneko antzokia doan erabiltzea ezohiko entseguetarako eta urtean bi aldiz jendaurreko emanaldiak eskaintzeko. Bigarren kasuan teknikari lanen kostua barne. Antzokiaren erabilera espazioaren erabilgarritasunaren mende egongo da eta aldioro eskaera aurkeztu beharko da udaletxeko erregistroan.
- Udal material eta ekipamendu orokorra abesbatzaren esku egongo da beren emanaldietarako beharrezkoa bada eta libre baldin badago. Aldioro eskaera aurkeztu beharko da udaletxeko erregistroan.

4.3. Hitzarmen honen baitan burutuko diren jardueren informazioa zabaltzea, ahal dela, hileroko agendan eta bestelako euskarrietan.

4.4. Diru itzulketen espedienteak izapidetzea udal ordenantzaren 26 eta 27. artikuluen arabera.

4.5. Hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzea arau-haustetzat jo daitekeenean (*Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 28. artikuluen arabera*) zehapen espedienteak izapidetzea ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

BOSGARRENA.- Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, elkarrekin dirua itzuli egin beharko luke.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazioan eta garapenean dirulaguntzei aplikagarria zaien administrazioaren ordenamendu juridikoa aplikatuko da.

Interpretazio hori egitea, Astigarragako Udalari dagokio eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.



Astigarragako Udala

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetako alde biek hartzen dituzten betebeharrak edo erantzukizunak, eta elkarrengandik dituzten eskubideak, eta hitzarmen honetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietarako, honako legeria aplikatuko da:

1. Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.
2. Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinen bitartez dirulaguntza orokorrak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearena erreglamentua onartzen dena.
4. Dirulaguntzen Udal Ordenantza (*ordenantza eskura dago udalaren webgunean: <https://www.astigarraga.eus/eu/beste-ordenantza-batzuk>*)
5. Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

ZORTZIGARRENA.- Eragiyok abesbatzak 3.5 puntuan jasotako epean Astigarragako Udalarik urteko jardunaren txostena aurkeztuko dio ondoko informazio eta agiriekin batera:

- **Memoriaren fitxa osatuta** (emanaldiak, datak, parte-hartzaileak, balorazioa, argazkiak...),
- **Gastuen excel zerrenda** (gastu bakoitzaren azalpena eta bakoitzari dagokion faktura edota egiaztapenak zerrendaren ordena berean), **faktura**, **tiket edota ordainagiriak** eta horiek ordaindu izanaren frogak (**transferentziaren agiria**).
- **Diru sarreraren zinpeko agiria.**
- **Hizkuntza eta berdintasun fitxak** eta ikus-entzunezko eta material grafiko oro (kartel, esku-orri, bideo...).

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetatik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira.

Horrela jaso dadin eta ados daudela adierazteko hitzarmen hau sinatu dute hasieran adierazitako lekuan eta datan.


Xabier Urdangarin Lasa **Udala**
Alkatea, Udalaren izenean


Javier Oyarzun Goyalde
Eragiyok abesbatzaren izenean

